



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko uztailaren 5a

93. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru-lege proposamenak:**

- 11-24/PRO-00007. Foru Legea, Nafarroako Eskubide Kulturaleri buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsi du (2. or.).
- 11-24/PRO-00010. Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).
- 11-24/PRO-00012. Foru Legea, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).
- 11-24/PRO-00008. Foru-lege proposamena, Toki Inbertsioen Plana arau-tzen duen mar txoaren 22ko 8/2022 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).
- 11-24/PRO-00009. Foru-lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren Gainera Zergari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- María Jesús Valdemoros Erro andreak foru parlamentari izaerari uko egitea (7. or.).
- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Akats zuzenketa (7. or.).
- 11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea. Akats zuzenketa (8. or.).
- Mario Fabo Calero jauna Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioan sartzea (8. or.).

#### I SAILA:

##### **Planak, komunikazioak eta programak:**

- 11-24/CDP-00003. Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2024ko Plan Operatiboa (9. or.).

#### J SAILA:

##### **Ponentziak:**

- 11-24/PON-00001. Ponentzia bat eratzea Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2 artikuluan jasotzen den Jokabide-kodea aztertzeko eta onesteko. Funtzionamendu arauak (10. or.).

---

**B saila:**  
**FORU-LEGE PROPOSAMENAK**

---

**11-24/PRO-00007. Foru Legea, Nafarroako Eskubide Kulturelei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legea aldatzekoa****OSOKO BILKURAK ONETSI DU**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Nafarroako Eskubide Kulturelei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Legea, Nafarroako Eskubide Kulturelei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legea aldatzekoa****HITZAURREA**

Kultura entretenimendu edo aisialdiaz askoz harago doa: eskubide unibertsal bat da, bermatu behar dena. Ezinbestekoa da pertsonen garapen integralerako eta, horrenbestez, gizartearen ongizatean aurrerapausoak emateko, bai eta garapen sozioekonomikorako ere. Halaber, kultura gizarte-integrazio eta -kohesiorako tresna bat da, migrazioak, bizikidetzak eta gizarte-aldaketak nagusi diren testuinguru batean.

Halatan, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948ko abenduaren 10ean onetsitako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 27. artikuluan ezartzen da pertsona orok eskubidea duela erki-degoaren bizitza kulturean libreki parte hartzeko, arteez gozatzeko, aurrerapen zientifikoan eta horrek dakartzan onuretan parte hartzeko, bai eta norberak egindako lan zientifiko, literario edo artistikoak direla-eta dagozkion interes moralak babestuta edukitzeko ere.

Horrenbestez, ezberrik gabekoa da kultura gure gizartearen funtsezko elementu dela; eta, alde horretatik, urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legeak, Nafarroako Eskubide Kulturelei buruzko-

ak, gure ordenamendu juridikoan zinezko mugarri den horrek, paradigma-aldaketa bat ekarri zuen, kulturearako eskubidetik eskubide kultureletara pasatzea ahalbidetu zuena, bai eta erraztu ere eskubide horiek giza eskubidetzat baliatuak izatea, orobat errazturik kulturearako eta sorkari artistikoetarako irispide unibertsala eta bizitza kultureleko parte-hartzea. Halaber, sormena sustatu zuen, arte-adierazpenak babestu zituen, eta kulturegintzako langileek eta kulturearen eta sorkuntzaren industrietako ekintzaileek duten zeregina babestu eta aitortu zuen.

Aipatu legeak printzipio batzuk ezartzen ditu, bermatzekoak pertsona orok modua izan dezan, zein ere den bere egoera sozial, ekonomiko, kultural edo geografikoa, ondasun eta zerbitzu kulturetarako irispidea izateko eta bizitza kulturean parte hartu eta horren garapenari ekarpena egiteko.

Nafarroako Eskubide Kulturelei buruzko 1/2019 Foru Legeak berak, bere 1.2 artikuluan, dio: "foru lege honetan xedatutakoa betetzeko, Nafarroako Administrazio Publikoek koordinatuko dituzte eskubide kulturelekin lotuta gauzatzen dituzten jarduketak, bermatu eta sustatuko dute eskubide horien erabilera eta kultur ondasun eta zerbitzuetarako irispidea izatea, eta ziurtatuko dute sortzaileen, kultur eragileen eta herritarren parte-hartzea bizitza kulturean eta kulturearen arloko politika publikoak diseinatu, garatu eta ebaluatzeko prozesuetan". Horregatik, 5.1 artikuluan, foru legeak xedatzen du: "foru lege honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan aurreikusitako baldintzetan, Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoek bermatuko dute eskubide kulturealak osotara eta libreki erabiltzea egiazko berdintasuneko araubidean, horretarako behar diren aurrekontu-neurriak hartuz, bai eta behar diren gainerako neurriak ere, izaera positiboa eta sustapenekoak dutenak barne".

Alabaina, 5.1 artikuluan "horretarako behar diren aurrekontu-neurri"ei buruz ezartzen den bermea kontzeptu juridiko zehazgabea da, inolako efekturik gabeko asmo-adierazpen huts batera eraman dezakeena.

Bestalde, teknologia berriek irekitzen duten bideak eta egile-eskubideen eta jabetza intelektualaren aldezenaren eskutik sortzen diren erronkek legedia etengabe eguneratzera behartzen dute, gizartearen bilakaerak aurrera egin ahal bizirik iraunen duen legedia izatekoa bada.

Hori dela-eta, beharrezkotzat jotzen da Nafarroako Eskubide Kulturaleri buruzko 1/2019 Foru Legea aldatzea, ziurtasuna eta berme juridikoa emateko eta helburu-zehaztapena ahalbidetzeko.

**Artikulu bakarra.** 1/2019 Foru Legea aldatzea, urtarrilaren 15ekoa, Nafarroako Eskubide Kulturaleri buruzkoa.

Bat. 21. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

«21. artikulua. Arte eta literatur sorkuntzarako askatasuna.

Ordenamendu juridikoari jarraikiz, pertsona guztiek eskubidea dute arte eta literatur ekoizpen eta sorkuntzarako, eta beren sorkariak beren aukerako lengoia, kode eta formatuetan adierazi edo formulatzeko, jabetza intelektualeko eskubideak errespetatuz, pertsonen eta sorkuntza artistikoko prozesuek sortuak, sistema teknologiko berritzaileak ere erabiltzeko aukerarekin, hala nola adimen artifiziala, sorkuntza-prozesuen lagungarri gisa bai baina ordezko gisa ez».

Bi. Xedapen gehigarri bakarraren izenburua aldatzen da.

«Lehenengo xedapen gehigarria. Zerbitzuarantz».

Hiru. Bigarren xedapen gehigarria izanen den bat eransten da, testu honekin:

«Bigarren xedapen gehigarria. Gutxieneko aurrekontu-baliabideak.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontu orokorretan jarduera eta zer-

bitzu kulturaletara eta kultur eginkizunera bideratzen dituen aurrekontu-baliabideak urtero pixkanaka gehituko dira, halako moldez non 2030. urtetik aurrera ezin izanen baitira izan Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontu orokorraren % 1,5 baino txikiagoak, eta gutxieneko gastu gisa finkatuta geratuko eta joko baitira orduetik aurrerako aurrekontu-ekitaldietarako.

Era berean, eta aurrekontuak uzten duen eskuragarritasunaren arabera, beharrezkoa izanen da pizgarri fiskalak eta mezenasgoa aldiro berrikus-tea, Nafarroako kultur sistemaren lehiakortasuna mantentzearen eta adierazitako aurrekontu-helburua lortzeko lagungarri gisa».

Lau. Hirugarren xedapen gehigarria izanen den bat eransten da. Honako testu hau izanen du:

«Hirugarren xedapen gehigarria. Adimen artifizialaren erabilerrari buruzko informazioa.

Halaber, dirulaguntzei dagokienez, jarduera edo zerbitzuetarako baldintza teknikoek pleguetan edo bitarteko berekiei eginiko enkarguetan, zuzeneko dirulaguntza izendunetarakoak edo norgehiagokazko laguntzetarakoak edo beste entitate batzuentzako transferentzietarakoak diren administrazio-prozeduretan, zeinetan modua baitago, diruz lagundutako jardun edo xedea egite aldera, adimen artifizialeko teknikez baliatzeko, Nafarroako Gobernuak saiatuko da esanbidezko klausula bat txertatzen, non adieraziko baita ezen, edozein jarduera egiteko asmoz adimen artifizialeko ereduak erabiliz gero, hornitzaileak horren berri eman beharko duela, bai eta zehaztu ere proiektua garatzen duten pertsona fisikoek izanen duten esku-hartzearen maila eta, kasua bada, haien berrikuspen-zeregina, eta begirune gorena bermatu beharko da adimen artifizialaren eta jabetza intelektualaren gaiari buruz dagoen araudiaren aldera, bai eta dataset-aren gardentasuna ere, eta bete egiten direla, gai honi buruzko araudi propioa taxutu bitartean, adimen artifizialari buruz dagoen araudiak ezartzen dituen gainerako betebeharrak».

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

## **11-24/PRO-00010. Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa**

#### HITZAURREA

Administrazio Publikoaren Konferentzia Sektorialaren baitan, non presentzia baitaukate autonomia-erkidego guztiek eta, horrenbestez, baita Nafarroako Foru Komunitateak ere, erabaki bat hartu zen, genero-indarkeriaren biktima izandako emakumezko enplegatu publikoen administrazioarteko mugikortasuna errazteko.

Nafarroak eskumena izaki Nafarroako administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileen estatutu-araubideari dagokionez, beharrezkoa gertatzen da langile horien estatutua aldatzea, erantzun egokia eta berme juridikoduna emate aldera genero-indarkeriaren biktima diren emakume guztiei, zeinek, Nafarroako Gobernuako funtzionario izanik, beste erkidego batera lekualdatuak izatea eskatzen baitute, beren eta beren familiaren babeserako eta segurtasunerako eskubidean oinarrituta eta beren eskubide profesionalen kalterik gabe.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubideak bermatzea haiek babeserako duten eskubidearen parte da; baina, oroz gain, emakume askori segurtasuna ematerantz urratsak egin ahal izateko funtsezkoa da, haiek beldur eta antsietatezko espiral batean bizi direnean, pairatzen duten indarkeriarekin eta beren tratu txarren emai-

learengandik aldentu eta/ala hura salatzearen artean erabakitzearen aukerarekin.

Administrazio publikoentzat betebeharra da eskubide horien baliatze egiazkoa bermatzea eta lasaitasuna emateko balio duten bitartekoak antolatzeke gai izatea. Horrekin, eredugarri izanen dira beste entitate edo enpresa pribatu batzuen jardunerako.

Administrazio guztiek lehenetsi beharrekoa da indarkeria matxistaren aurkako borroka, eta biktima diren emakumeen eskubideen bermatzea presente egon behar da ekintza guzti-guztietan, hala ko moldez non azkar hartuko baitira babeserako eta administrazioen arteko koordinaziorako neurriak.

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei zor zaien babes hori gauzatzeko, beharrezkoa da administrazio publikoei dagokienez Nafarroako legeria aldatzea.

**Artikulu bakarra.** Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina onesten duena.

Hogeita bosgarren xedapen gehigarria izanen den bat gehitzen da, testu honekin:

«Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. Administrazio publikoen arteko mugikortasuna.

Emakumearenganako indarkeriaren biktima izanik administrazio publikoen zerbitzura diharduten emakumezko enplegatuen eskubideak babestu egiten direla bermatzearen helburua gauzatze aldera, Foru Komunitateak zilegi izanen du administrazioarteko mugikortasuneko neurriak ezartzea.

Horretarako, estatutu honen 35. bis artikuluan jasotzen den kasuan, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzura ariturik emakumearenganako indarkeriaren biktima direla apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen 4. artikuluari jarraikiz aitortuta duten emakumezko enplegatuak zilegi izanen dute eskatzea Nafarroako Foru Komunitatek kanpoko beste administrazio publiko batera lekualdatuak izan daitezen. Mugikortasun hori gauzatu da jomugako administrazio publikoaren ordenamendu indardunak mugikortasun hori arautzen duen nondik norakoekin, eta halaber ezarriko da zein baldintzatan gauzatu den jomu-

gako administrazio publiko jadanik aipatuaren plan-tillako postu batera haiek lehentasunez iragatea.

Era berean, Nafarroako Foru Komunitateaz kanpoko administrazio publiko bateko emakumezko enplegatu publikoa izanik genero-indarkeriaren biktima izan eta mugikortasun hori norbere babes eta laguntza integralerako eskubideaz baliatze aldera eskatzen duenak zilegi izanen du Nafarroako Gobernuko postu huts batera igarotzea, zeina esleituko baitzaio estatutu honen 35. bis artikulua ezarritako baldintzetan.

Beti ere, administrazio publikoen arteko salbuespenezko mugikortasunari buruzko aurreikuspen hau ulertuko da lanpostu-betetzearen eta mugikortasunaren beste modalitate batzuen kalterik gabe, zeinetarako eskubidea izaten segitu egiten baitu kasuko emakumezko enplegatu publikoak, lanpostu-betetzarako eta mugikortasunerako prozedura arrunt bakoitzaren araubideari jarraikiz».

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

## **11-24/PRO-00012. Foru Legea, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea aldatzen duena**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Foru Legea, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea aldatzen duena**

#### **HITZAURREA**

Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legeak honako hau esaten du zioen azalpenean: "Kirola segurtasunez egiteko eta lehiaketaren arloan emaitza onak izateko, garrantzi handia du irakaskuntzako eta kirol instalazioetako zuzendaritzaren inguruko kirolarietako eta teknikarietako prestakuntza egokia izateak". Horretarako, Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legeak berak kirol-teknikarien titulazio ofizialak lortzeko irakaskuntzak arautzen ditu, Nafarroako kirol-jardueren alorreko prestakuntza sustatzen du, eta jarduera jakin batzuetarako titulazioaren derrigortasuna

ezartzen du. Zehazki, honako hau xedatzen da 85.1 artikuluan: "Nafarroako lurraldean kirol irakaskuntzan, kirol zuzendaritza teknikoan, entrenamenduan, animazioan eta erregelamendu bidez ezartzen diren kirol izaera teknikoko antzeko beste arlo batzuetan aritzeko, ezinbestekoa izanen da horretan aritzen direnak kasuko titulazioaren jabe izatea, kirol gaietan indarra duten araubekin bat".

Araubide hori dela-eta, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legeak 1.1 artikuluan ezarritako xedea da "Nafarroan kirol arloko lanbide jakin batzuetan hasteko eta aritzeko oinarriko alderdiak arautzea. Berariaz adieraziko da zeintzuk diren lanbide horiek, lanbide bakoitzaren jardun-eremu funtzional orokorra ezarriko da, eta aditzera emanen da lanbide horietan sartzeko zer kualifikazio eskatzen den".

Bestetik, kirol-sistemari eta jarduera fisikoari dagokienez Foru Komunitatean dagoen egoerak beharrezkoa egiten du kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko Foru Legeak araturiko jardura egiten ari diren pertsonen modua izan dezatela horretarako beharrezkoa den titulazioa daukatela frogatzeko.

Ildo horretan, araudi indardunak ezartzen du ezen, foru lege horrek zehazten duen egunean –2024ko urtarrilaren 1ean, alegia– kirol-lanbideren batean jadanik badiharduten pertsonen behin-behineko

neko gaikuntza emateko, pertsona horiek egun hori baino lehenago aurkeztuta eduki beharko zutelako erantzukizunpeko adierazpen bat. Beraz, bidezkoa da arau-eguneratze hau egitea, aipatu prozedura aurrera eramanez ahal izateko eta ziurtasuna eta segurtasun juridikoa lortzeko, halako moldez non titulazio egokia daukaten pertsonen ardurapeko kirol-sistema bat erdietsi ahal izanzen baita.

Horregatik, egokitzat jotzen da 18/2019 Foru Legea aldatzea, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzkoa, foru lege horren zortzigarren xedapen iragankorrean jasotzen diren erantzukizunpeko adierazpenak aurkezteko denboramugak eguneratuz.

**Artikulu bakarra.** Apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea aldatzea, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzkoa.

Bat. Zortzigarren xedapen iragankorra aldatzen da, testu honekin:

«Zortzigarren xedapen iragankorra. Erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko epeak.

1. 2025eko irailaren 1a baino lehen kirol-lanbideren batean jadanik badihardutenek egun hori baino lehen aurkeztu beharko dute erantzukizunpeko adierazpena.

2. Kirol-lanbidean 2025eko irailaren 1etik aurrera hasi nahi dutenek lanbidean hasi aurretik aurkeztu beharko dute erantzukizunpeko adierazpena».

Bi. Azken xedapenetako laugarrenaren 2. apartatua aldatzen da, eta hauxe da testu berria:

«2. Aurrekoa gorabehera, foru lege honetan araututako lanbideetan aritzeko gaikuntza ematen duten lanbide-kualifikazioak 2025eko irailaren 1etik aurrera eskatuko dira».

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

## 11-24/PRO-00008. Foru-lege proposamena, Toki Inbertsioen Plana arautzen duen mar txoaren 22ko 8/2022 Foru Legea aldatzekoa

### OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Toki Inbertsioen Plana arautzen duen mar txoaren 22ko 8/2022 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamena ezetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hori argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## 11-24/PRO-00009. Foru-lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa

### OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzeko foru-lege proposamena ezetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hori argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **María Jesús Valdemoros Erro andreak foru parlamentari izaerari uko egitea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Foru parlamentari María Jesús Valdemoros Erro andreak foru parlamentari izaerari uko egite aldera aurkeztu duen idazkia dela-eta, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Jasotzat ematea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztutako idazkia, zeinaren bidez uko egiten baitio foru parlamentari izaerari –izaera

hori apirilaren 4ko 3/2023 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan lortu zuen (68. zenbakiko NAO, 2023ko apirilaren 4koa), Unión del Pueblo Navarro hautagaitzaren barruan–.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea**

### **AKATS ZUZENKETA**

Akatsa aurkitu baita Nafarroako Parlamentuaren Mahaiaren 2024ko ekainaren 3ko Erabakian –horren bidez, luzatu egin zen Nafarroako Gardentasun Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaitzak aurkezteko epea–, hona hemen zuzenketa:

Erabakiaren lehen puntuan, honako hau dioen tokian:

"(...) 2024ko irailaren 5eko **17:30era arte luzatzea**"

honako hau jarri behar da:

"(...) 2024ko irailaren 5eko **14:00etara arte luzatzea**"

Iruñean, 2024ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## 11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea

### AKATS ZUZENKETA

Akatsa aurkitu baita Nafarroako Parlamentuaren Mahaiaren 2024ko ekainaren 3ko Erabakian –horren bidez, luzatu egin zen Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzeko hautagaitzak aurkezteko epea–, hona hemen zuzenketa:

Erabakiaren lehen puntuan, honako hau dioen tokian:

"(...) 2024ko irailaren 5eko **17:30era arte luzatzea**"

honako hau jarri behar da:

"(...) 2024ko irailaren 5eko **14:00etara arte luzatzea**"

Iruñean, 2024ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## Mario Fabo Calero jauna Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioan sartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko uztailaren 5ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Mario Fabo Calero jaunak idazki bat aurkeztu du 2024ko uztailaren 4an, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioan sartu dela adierazteko.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 35. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Jakintzat ematea Mario Fabo Calero jauna Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioan sartu izana.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko uztailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



---

**I saila:**  
**PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK**

---

## **11-24/CDP-00003. Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2024ko Plan Operatiboa**

2024ko ekainaren 17an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Gobernuari helarazi zion Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioek eginiko eskaria, hark Legebiltzarrera igor dezan Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2024ko Plan Operatiboa, behin onetsita, Parlamentuak planari buruzko iritzia eman dezan.

Nafarroako Gobernuak 2024ko ekainaren 13an igorri zion Nafarroako Parlamentuari Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2024ko Plan Operatiboa.

Horrenbestez, Eledunen Batzarriari entzun ondoren eta Erregelamenduaren 227. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2024ko Plan Operatiboa izapidetzeko onartzea.

**2.** Xedatzea Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeari dagokiola planari buruzko iritzia ematea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

(Oharra: Aipatu plana Nafarroako Parlamentuaren webgunean kontsultatu daiteke: <https://parlamentodenavarra.es/es/contenido/planes>)

---

**J saila:**  
**PONENTZIAK**

---

**11-24/PON-00001. Erabakia, zeinaren bidez onesten baita ponentzia bat eratzea Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2 artikuluan jasotzen den Jokabide-kodea aztertzeke eta onesteko**

*FUNTZIONAMENDU ARAUAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125. artikuluan ezarritakoaren arabera, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen “Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2 artikuluan jasotzen den Jokabide-kodea aztertzeke eta onesteko ponentziaren barne-funtzionamenduko arauak”, dagokion ponentziak 2024ko ekainaren 27an onetsiak. Hona erabakiaren testua:

“**Lehena.** Ponentziak xede du Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2 artikuluan jasotzen den Jokabide-kodea aztertzea eta onestea.

Hartara, eta Erregelamenduaren 26.2 artikuluan berean ezarritakoaren arabera, ponentziaren behin betiko txostena Erregelamendu Batzordeari helaraziko zaio, hark onets dezan.

Behin txostena eginda, Parlamentuko Mahaira eramane da argitara dadin agin dezan. Txostenarekin ados ez dauden talde parlamentarioek beren desadostasunak adierazi ahal izanen dituzte zuzenketen bidez. Zuzenketak idatziz aurkeztu beharko zaizkio Batzordeko Mahaiari, txostena argitaratu eta zazpi eguneko epean gehienez ere.

Epe hori igarota, Batzordeko Mahaiak –alde aurretik batzorde horren lehendakariak deituta– izapidera onartuko ditu zuzenketak, aurkezpen hurrenkeraren arabera ordenatuko ditu eta Legebiltzarreko lehendakariari bidaliko dizkio, hark, bestelako izapidetik gabe, Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agindu eta deialdia egin dezan, Batzordeak txostena eta aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatu ditzan.

Eztabaida amaitu ostean txostena eta hari aurkeztutako zuzenketak bozkatu dira, eta onesten diren zuzenketak behin betiko testuari erantsiko zaizkio.

Onetsitako txostena Parlamentuko Mahaiari jakinaraziko zaio, Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin eta 26.2 artikuluan ezarritakoaren arabera Erregelamendu Batzordeari helaraz dakion.

**Bigarrena.** Hona ponentzia osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

– Marta Alvarez Alonso andrea (Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioa).

– Ordezkoa: Javier Esparza Abaurrea jauna.

– Inmaculada Jurío Macaya andrea (Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa).

– Ordezkoa: Maite Esporrín Las Heras andrea.

– Mikel Zabaleta Aramendia jauna (EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa).

– Ordezkoa: Adolfo Araiz Flamarique jauna.

– Blanca Isabel Regúlez Álvarez andrea (Geroa Bai talde parlamentarioa).

– Ordezkoa: María Roncesvalles Solana Arana andrea.

– María Isabel García Malo andrea (Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioa).

– Ordezkoa: Irene Royo Ortin andrea.

– Daniel López Córdoba jauna (Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioa).

– Ordezkoa: Carlos Guzmán Pérez jauna.

– María Teresa Nosti Izquierdo andrea (Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarte).

– Ordezkoa: Emilio Jiménez Román jauna.

**Hirugarrena.** Ponentziak Unai Hualde Iglesias jauna hautatu du lehendakari, bera baita Erregelamendu Batzordearen lehendakaria.

Idazkari-lanetan Nafarroako Parlamentuko legelari nagusia jardunen da.

**Laugarrena.** Lan-taldeak boto ponderatuen sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horretarako, talde parlamentarioen ordezkariak norbere talde parlamentarioaren edo parlamentarien elkartearen kide kopurua bezainbat boto edukiko dituzte.

Ponentziaren erabakiak Parlamentua osatzen duten kideen hiru bosteneko gehiengoaren bidez hartuko dira.

**Bosgarrena.** Ponentziak laguntza eta lankidetzatza eskatzen ahalko die arlo horretako adituei, eta,

Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, kargudun eta funtzionario eskudunak ponentziara etor daitezten, edo beharrezkoak diren txostenak egin daitezten, eskatzen ahalko du.

**Seigarrena.** Ponentziak agindu zaion lana bukatu arte jardunen du. Ponentzia eratzen dene-tik sei hilabete igarotzen direnean amaituta egon beharko du lan horrek, deusetan galarazi gabe onesten ahalko diren balizko luzapenak.

**Zazpigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da".

Iruñean, 2024ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

